



Prensa oharra

Aurre horretan berrituriko hitzarmenaren parte da

EROSKI-K WWF-REKIN EGIN DUEN ELKARTASUN KANPAINAN 22.500 EURO BILDU DIRA BASOAK ZAINTZeko ETA EKOSISTEMAK BERRESKURATZeko

- **Abuztutik hona elkartasun poltsak salduz bildu den guztia WWFri emango dio EROSKI**
- **Osasunaren eta Iraunkortasunaren alde EROSKI hartu dituen konpromisoen harira dator ekintza hau; asmoa da bizi kalitatea hobetzea eta gizarte iraunkorrako baten alde egitea**

Elorrio, 2018ko abenduaren 14a.- [EROSKI](#)k eta [WWF](#)k elkarrekin egin dute basoak eta ekosistema hondatuak berreskuratzen laguntzeko elkartasun kanpaina hori, eta guztira, 22.500 euro bildu dituzte. Bi entitateek orain dela hilabete batzuk berritutako hitzarmenaren harira abiatu zen kanpaina abuztuan, eta azarora arte iraun du. EROSKI naturaren aldeko erakundeari emango dio elkartasun poltsarekin bildu duena.

WWFk basoak zaintzeko erabiliko du diru hori, honako helburu hauekin: basoen eginkizuna berreskuratzea —hau da, baliabideak, ura eta kalitatezko airea ematea, uholdeetatik babestea eta Lurreko klima erregulatzea—; baso espezie eta adin askotariko baso autoktonoak sortzea eta, horrela, dibertsitatearen eta habitat askotarikoen alde egitea; basoen erabilera ugaritzea, landa eremuetako jarduera ekonomikoaren oinarria izateko; eta paisaia aniztuna eta errentagarria eratzea, etorkizuneko kolpeei eusteko.

"Oso pozik gaude gure bezeroek kanpaina honetan eman duten erantzunarekin. Gizarte bidezkoago, solidarioago eta iraunkorrako baten alde egitea da, kooperatiba garen aldetik, geurez dagokigun eginkizunetako bat. WWFrekin orain dela gutxi berritu dugun konpromisoaren harira dator kanpaina hau, eta [Osasunaren eta Iraunkortasunaren alde](#) harturiko konpromisoaren parte da; horien bidez, bizi kalitatea hobetu nahi dugu, eta gizartearen garapen iraunkorren lagundu", esan du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.



"Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiogu EROSKIri, dohaintza honegatik; izan ere, gure helburu nagusian laguntzeko balioko du, hau da, natura bere onera ekartzea modu integralean. Gure basoen egoera larria da: Espainian har lezakeen azaleraren %29 baino ez du hartzen, eta gelditzen diren basoen gehiena ez dago oso egoera onean. Europako Batasunak hondatu diren ekosistemen %15 lehengoratzeko helburua du 2020rako", esan du WWFko idazkari nagusiak, Juan Carlos del Olmok.

EROSKIk sei urte daramatza bere dendetan euro batean saltzen dituen elkartasun poltsetatik bildutako guztia gizarte ekimenetarako ematen. Poltsa hori telazko poltsa berrerabilgarri bat da, erraz tolesten dena; sakelan eramateko modukoa da, eta egokia, halaber, esku zorroan edo autoan edukitzeko. 2013an atera zenetik, kooperatibak milioi bat pasa elkartasun poltsa saldu ditu, eta etekinak hainbat erakunderi eman dizkio, hala nola Gurutze Gorriari, Unicefi, Oxfam Intermoni eta Save the Childreni.

EROSKI

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziazko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.651 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, baditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash&carry-ak eta, horretaz gain, gasolindegia, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak ere bai. Hasieratik ari da EROSKI gizarte ekintza askotan, bereziki bizi ohitura osasungarrien promozioan, kontsumitzailearen hezkuntzan, ingurumenaren defentsan eta elkartasunean.

WWF

WWF natura babesteko mundu erakunde independenterik handienetako eta eraginkorrenetako bat da. Haren helburua da Lurreko ingurumen hondamendia geldiaraztea eta gizakia etorkizunean naturarekin harmonian biziko den etorkizun bat eraikitzea, aniztasun biologikoari eutsita, baliabide berriztagarri naturalen erabilera iraunkorra ziurtatuta eta kutsadura eta neurrigabeko kontsumoa gutxitzen lagunduta.

Harremanetarako:



<p>EROSKI Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Xurdana Fernández Herrán, Tel: 946 211 214 comunicacion@eroski.es</p> <p>Prentsa bulegoa - Consejeros del Norte Joana G. Landazabal / Edurne Izquierdo Tel: 944 158 642</p>	<p>WWF Komunikazio Saila Tel.: 91 354 05 78</p>
---	--